

Epikarik gabe ez da errepublikarik

**Xabier Mikel
Errekondo**

Urrun, urrunera oso egin dute kataluniarrek errepublikar Estatua eraikitzeko bidean. Orain urte batzuk atzera genuen begiratzen haiek ikusteko. Gaur, eskua bekain estutuan paratuta ere, gero eta txikiagoak dakusagu zerumugan pausoek harrotutako lanbropean ia galduta. Eta guk hemen jarraitzen dugu biraoka batak besteari, ezgaitasunak jota aulki geldoan biraka arraun bakararrekin eragiten nola. Bihotzek soilik nekez dezakete lor independentzia, ezinbestekoa dute alboan mende batez

demonizatu dugun praxia. Ez dut sinesten salto bakarrean burututako iraultzan. Nago brankara egiteko modu bakarra dagoela: pauso bi aurrera eta bat atzera, bihotza eta praxia lagun.

Handia da Europaren erdian errepublikar Estatu berri bat. Baina espainiar botereak ez du mendeak atzera indarrez eta odolez menperatutako lurren giltzarrapoa birrintzeko aukerarik akordatuko, indar osoz kolpatuko baik. Beraz, errepublikaren apustua bururaino eramango badute, nahi eta nahi ez epikak blaitutako bidea ibili be-

harko dute, konpromisoak, elkarlanak, izerdiak eta, bai ala bai, odolak zizelkatuko bidea.

Urrunera oso egin dute kataluniarrek, eta lurraldea Espainiatik banatzeko independentziaren ontziak indar kolperik handiena jo duenean Estatua-ren herio kanoikadak jaso ditu eta izuek eta mesfidantzek arraunketa eten egin dute. Epikaren atarian daude eta ontzia hondoratuko ez bada, 10 urte nola, herritarrek gidatu beharko dute brankara ordezkari politikoen eskuetan dagoen lema. •

Bortxatzaileen ordeztortxatua epaitzen ari dira

Maiderrantz

Epaiketa atea itxita egiteak (biktimaren eskariz, baina baita erasotzaileen galdez ere) ez du eragotzi kaka zabaltzea. Eta bortxatua ari da zikintzen bortxatzaileak beharrean. Asteazkenean, azkenik, neskaren abokatuek isiltasuna hautsi behar izan zuten hedabideek bere deklarazioa berreraiki zutelako defentsaren iturriekin. Gaztearen deklarazioa beti bera izan dela eta transmititutako lasaitasuna egia erraten ari den seinale dela argitu beharrean izan dira. Hedabide eta sare sozialen erabiltzaile aunitzengat

bazka ederra izaten ari da berriro emakume baten sufrimendua. Behin injustizia jasatearekin aski ez eta bigarren aldiz erasotzen ari dira gaztea, bera epaitzen ari direlako bortxatzaile taldearen ordeztortxatua.

Zaborra zabaltzen duten bozgorailu berak gertatzen ari dena salatzeke, ordeztortxatua. Eta neska epaitzen hasi orduko agertu dute jendearen sumina (Oihana Llorente lankideak ederki jasotzen du NAIZen, Zirimolatzen blogean). Etxera oinez itzultzen ahalko naiz? Noiz liga-

tzen ahalko dut berriz? Bakarrik bidaia-tzeko moduan izanen naiz? Gustuko kantuarekin dena ematen ahalko dut? Halako galderak egiten azaltzen da, adibidez, hainbat emakume bideo batean, bortxatutako neska gaztearen azalean jarritik eta zauriak sendatu eta ongi bizitzeko duen eskubidea epaitzen ari direla ohartaraziz. Beti eskatzen zaio eraso jasanearen salaketa jartzeko, baina horrek ekartzen duen txar guztia agerian gelditzen ari da Iruñeko kasu honetan ere. Hipokrisiak utzi eta jar gaitezen emakumearen lekuan behingoz. •